



UDAL-LOKALEN ERABILERARI ETA LAGAPENARI BURUZKO ARAUDIA

Agoizko Udalaren lokalen erabilera eta lagapena arautzen dituen udal-ordenantza.

1. artikulua. Araudiaren xedea da Agoizko Udalaren jabetzako udal-lokalen erabilera lagatzeko baldintzak ezartzea, gizarte eta kultur jarduerak egiteko.

2. artikulua. Udalak arduradun bat izendatuko du, honako ardura hauek izango dituena: giltzak uztea eta biltzea, egoera gainbegiratzea antolatzen den ekitaldi bakoitzaren aurretik eta ondotik, eta arau hauen 10. artikulua aipatzen duen ziurtagiria biltzea. Nolanahi ere, eskatzen diren egintzak ez ditu arduradun horrek baimenduko, Agoizko Udalaren ardura izango baita, arau hauen 5. artikuluan azaltzen den moduan

3. artikulua. Interesdunek Udalean aurkezten duten eskaeran ezartzen dena izango da ekitaldien iraupena. Baimendutako emanaldiak bukatuz, giltzak arduradunari itzuliko zaizkio, eta hark gainbegiratuko du zer egoeratan dauden instalazioak eta haien sarbideak. Lagapen-hartzailea erantzulea izango da zerbait hautsirik baldin bada, eta berriak jarri beharko ditu, lehengo ezaugarri antzekoak dituztenak, edo haien diru-ordaina Udalari eman. 10. artikuluan azaltzen den moduan, fidantza bat ezarriko da instalazioen funtzionamendu egokiaren berme.

4. artikulua. Lagapen-hartzaileek Agoizko Udalaren Erregistroan aurkeztu beharko dituzte proposamenak edo, bestela, udaletxean, edo posta elektronikoaren bidez helbide honetara bidali: ayuntamiento@aoiz.es. Zenbat eta lehenago egin hobea izango da, eskaera aztertu ahal izateko Hala ere, urgentziarako eskaerak ebazten ahalko dira haren justifikazioak horrela jartzen badu agerian. Eskaera motaren arabera, dokumentazio hau eskatzen ahalko da:

- A.–Pertsona fisikoaren, elkartearen, entitatearen eta/edo enpresaren IFKren fotokopia.
- B.–Egin beharreko jarduketan gainera txostena, haien edukia, datak eta ordutegiak barne, baita eskatzaileari komenigarria iruditzen zaion beste edozein agiri ere. Betiere, txostenaren barnean sartuko dira eskatzailearen datuak (izena, harremanetarako pertsona, helbidea, harremanetarako telefonoa eta posta elektronikoa geroko harremanetarako).

Posta elektronikoaren bidezko eskaerak eginez gero, A eta B puntuetako artxiboak erantsi beharko dira.

5. artikulua. Proposamenak aztertu eta onartzea: Agoizko Udalak jarduketa-proposamena aztertuko du barne-ekitaldi batean. Han, kalifikatu eta ukatzea edo onartzea ebatziko du. Urgentziarako arrazoiak direla-eta eskaerak aurkezteko epeak eta baldintzak betetzea ezinezkoa bada, gutxienez ere Alkatetzarekin harremanetan jarri beharko da, eta haren oniritzia jaso.

6. artikulua. Esleipenerako irizpideak eta lagapenerako aurretiazko dokumentazioa:

Honako irizpide hauek hartuko dira kontuan erabiltzeko proposamenak onartzeko:

- Proposamenaren interesa, gizarte, kultura eta hezkuntzaren aldetik.
- Proposatu diren egun eta orduak.
- Proposamenaren komunikazio- eta publizitate-plana, Udalaren parte-hartzea aipatuta.
- Jardueraren pertsona eta erakunde arduradunen curriculumak.
- Prezioen eta tarifen proposamena, halakorik bada.
- Hobekuntzarako bestelako proposamenak, halakorik bada.

Udalak, lagapenaren aurretik eta ondoren, egoki iruditzen zaizkion irizpen eta txostenak eskatu ahal izango ditu. Lagatzeko irizpideen arabera esleitu da erabilera; lagatzeko prozedura eman gabe utz daiteke.

Era berean, Udalak, proposamen bat onartu eta interesdunari jakinarazi ondoren, beretzat gordeko du hura gerora deuseztatzeko edo aldatzeko eskubidea, lagapen-hartzaileari inolako ordainik eman behar izan gabe horregatik.

Bai onarpenak, bai geroko aldaketa edo deuseztapenak, halakorik bada, idatziz jakinaraziko zaizkio lagapen-hartzaileari, posta elektronikoaren bidez; era berean, udal-armarriaren logotipoa ere bidaliko zaio, lagapen-arau hauetako 17. artikuluan adierazitakoaren arabera erabili behar baitu.

7. artikulua. Halako kasu batzuetan, Udalak beretzat gordeko du tarifa bat kobratzeko eskubidea higieztatu lagatzeagatik; hura baimenaren aurretik komunikatuko da betiere. Horretarako, urtero Udalak tasak arautzeko osoko bilkuran onetsiko duen ordenantza hartuko da oinarritzat.

8. artikulua. Lagapen-hartzailea tarifetatik heldu diren diru-sarrerara guztien onuradun izanen da, halakorik bada.

9. artikulua. Lagapen-hartzaileak bere kabuz eskuratu beharko ditu proposatzen dituen jarduera guztiak egiteko behar diren baimenak.

10. artikulua. Lagapen-hartzaileak fidantza bat jarri beharko du instalazioak behar bezala erabiliko direla bermatzeko; programatutako ekitaldiak amaituta itzuliko zaio, behin haien egoera egiaztatuta. Halaber, giltzak ematen zaizkion momentuan aitortzen bat sinatuko du, higieztatu egoera onean jasotzen duela dioena, eta erabileraren lagapena bukatzean jaso bezain egoera onean itzultzeko beharkizuna ezartzen diona. Anomaliaren bat egonez gero, ekitaldia gauzatu aurretik jakinarazi beharko zaio giltzen arduradunari; bestela, ez da kontuan hartuko.

11. artikulua. Lagapen-hartzailearen kontura izango dira erantzukizun zibila nahiz istripuengatikoa, hala bere zerbitzuko langile guztiena nola parte-hartzaileena edo programatzen diren jarduerena; Agoizko Udalak, berriz, ez du inolako erantzukizunik izango haien gain.

12. artikulua. Lokalean ezin izango da aurkeztu den memorian jasotzen ez den jarduerarik egin. Edozein arrazoirengatik aldaketaren bat gertatzen bada, horren berri eman beharko zaio aurretik Udalari, baita hark onetsi ere. Beraz, jarduera guzti-guztiak antolatzeko, beharrezkoa da Udalak horien berri izatea eta alde aurretik baimena ematea.

13. artikulua. Lagapen-hartzaileak honako betebeharrak izango ditu:

- Berak eskaintzen dituen zerbitzu guztien funtzionamenduaren gaineko erantzukizun osoa.
- Lokala eta haren sarbideak egoki zaintzea jarduera osoa gauzatzen den bitartean.
- Programatutako jarduera guztiak koordinatzea.
- Tarifak kobratzea, halakorik bada.
- Giltzak biltzea eta Agoizko Udalaren ordezkari arduradunari itzultzea, zehaztutako epeetan.
- Instalazioen erabilera okerraren ondoriozko kalteen erantzule izatea.
- Instalazioaren funtzionamenduan edozein arazo gertatuz gero, haren berri berehala ematea Udalaren ordezkari arduradunari.
- Lokala garbi edukitzea, osotasunari kalte egin diezaiokeen ezer egin gabe (hala nola afixak, paperak etab. finkatzeko itsasgarriak edo bestelako baliabideak erabiltzea), Udalak aurretik eta berriaz baimendu ez badu.
- Bere jarduerari dagozkion instalazio eta ekipoen mantentze-lanak egitea.
- Higiene-osasunagatik eta osasungarritasunagatik, edozein animalia lokalera sartzea debekatzea, baita erretzea ere.
- Erantzukizun zibileko eta istripuetako segurtasunaz arduratzea, hala bere zerbitzuko langile guztienaz nola parte-hartzaile edo programatzen diren jarduerenaz. Agoizko Udalak ez du horien gaineko inolako erantzukizunik izango.

14. artikulua. Honako gastu hauek lagapen-hartzailearen kontura izango dira:

- Dagokion tarifaren gastua.
- Proposatutako jardueren ondoriozko gastu guztiak.
- Hala bere zerbitzuko langile guztiei nola parte-hartzaileei edo programatzen diren jarduerari dagokienez, erantzukizun zibileko aseguruia eta istripu-aseguruia kontratatzearen ondoriozko gastuak.

15. artikulua. Araudi hau ahalik eta hoberen betetzeko eta lagapen-prozesuetan zehar sor daitezkeen kontuak arintzeko helburuarekin, udal-batzorde bat sortuko da; hura Alkatetzak, Kultura Zinegotzigoak eta Udalak higiezina lagatzeko izendatutako arduradunak osatuko dute, eta, behar izanez gero, bertara gonbidatu ahal izango dute lagapen-hartzailea.

16. artikulua. Oro har, debekatuta dago erretzea, edatea eta jatea, bai lokalaren barruan, bai sarbideetan. Haietakoren bat egiteko Udalak berriaz eman beharko du baimena.

17. artikulua. Lagapen-hartzaileak lagatuko lokalean antolatzen dituen jarduera publiko guztietan eta edozein publizitate-euskaritan agertuko da Agoizko Udalaren logotipoa, baita testu hau ere: “Agoizko Udalaren laguntza”, gaztelaniaz eta euskaraz. Hura ikusteko moduko tokian agertuko da eta antolatzailearen edo edozein laguntzailearen maila berean. Logotipo hori baimenaren posta elektronikoa erantsiko da.

18. artikulua. Udalak beretzat gordeko du instalazioan ekitaldiak antolatzeko eskubidea, eta lehentasuna izango du beste edozein entitatek, lagapen-hartzaileak barne, antolatzen dituen ekitaldien aurrean; antolaketaren ondorioetarako, gutxienez ere hamabost egun lehenago komunikatu beharko dio lagapen-hartzaileari. Urgentziazko eskaerak salbuespena izango dira, Udalak baloratu, eta erabaki ahalko baitu zer emanaldik duen lehentasuna.

19. artikulua. Udalbatzako edozein kidek, izan berak izan gaitutako pertsona batek, programatutako zerbitzu eta jarduera guztien egoera eta funtzionamendua ikuskatu ahal izango du; beraz, horretarako, nahi duenean barrura eta jarduera horietara sartzen ahalko da, aurrez izena eta abisurik eman beharrik gabe.

20. artikulua. Aparteko arrazoiengatik lokala guztiz edo partez itxi behar baldin bada, Udalak ez du bere gain hartuko kalte eta/edo galeren erantzukizunik.

21. artikulua. Berariaz debekatuta dago lagapena besteren bati uztea edo eskualdatzea, nolana ere eta edonola izendatuta ere. Halaber, lagapen-hartzailea bakarra izango da; ezin izango da, beraz, beste zenbaitengan banatu edo zatikatu. Era berean, lagapen-hartzaileak gauzatu beharko du jarduera zuzenean eta pertsonalki.

22. artikulua. Lagapen-hartzaileak ez du inolaz ere aldaketa iraunkorrik egingo lokalean, Udalaren berariazko baimenik gabe. Haietarako baimena jaso ondoren, lagapen-hartzailearen kontura izango dira, eta Udalaren esku geratuko dira jarduera bukatzen denean, haien truke dirurik ordaindu behar izan gabe.

23. artikulua. Aplikatu beharreko tarifak honako hauek izango dira:

- **1. Tarifa :**
 - Irabazi-asmorik gabeko entitateak, elkarteak eta kolektiboak, egoitza soziala Agoitzen dutenak.
- **2. Tarifa :**
 - Irabazi-asmorik gabeko entitateak, elkarteak eta kolektiboak, egoitza soziala Agoiztik kanpo dutenak.
 - Irabazi-asmoa duten enpresak eta partikularrak, egoitza soziala Agoitzen dutenak.
- **3. Tarifa :**
 - Irabazi-asmoa duten enpresak eta partikularrak, egoitza soziala Agoiztik kanpo dutenak.

Aplikatu beharreko tasak:

- **1. tarifa: kosturik gabe.**
- **2. tarifa: erabilera-ordu bakoitzeko 10,00 € (% 50eko deskontua 3. tarifan aplikatuta).**
- **3. tarifa: erabilera-ordu bakoitzeko 20,00 €.**

Udalak epe luzerako jardueren eskaerak aztertuko ditu, eta tasen kostua egokitu eta/edo aldatu ahal izango du.

24. artikulua. Baldintza-plegu honetan jasotako edozein betebeharrak ez betetzea baimena desegiteko arrazoia izango da, lagapen-hartzaileari eska dakizkiokeen erantzukizunei uko egin gabe.

25. artikulua. Programaturiko jardueren arrisku eta mentura lagapen-hartzailearen gain egongo da.

26. artikulua. Baldintza-plegu honen ondoriozko lagapen-prozedurak izaera administratiboa du; beraz, haien ondoriozko gorabeheren guztien ebazpena, baita bertako xedapenen interpretazioa ere, Agoizko Udalaren eskutan egongo dira lehenik eta behin, nahiz eta haren ebazpenen kontra jotzen ahalko den, hautara, Nafarroako toki entitateetarako aurreikusirik dauden bideak erabiliz.

27. artikulua. Agoizko Udalak noiznahi berrikusten eta aldatzen ahalko ditu arau hauek, baina horrek ez die eraginen lehenago onetsitako eskaerei.

28. artikulua. Bi eskaerak data eta ordutegietan bat egiten badute, lehenago aurkeztu dena nagusituko da. Hala ere, eta salbuespenez, haren beharrik bada, 18. artikulua dioen bezala, Agoizko Udalak erabakitzen ahalko du zer emanaldik duen lehentasuna aldi berean proposatu direnen artean.

29. artikulua. Jarduera amaitzean ordainduko dira tasak. Udalak dagokion faktura igorriko dio lagapen-hartzaileari.